

BALIOA

Lehiakideez desberdintzen gaituzten faktorerak hauek dira:

- Alde batetik, lana errazten diogu gure bezeroei. Etxeetan animalirik eduki ezin dezaketen pertsonak gure animalientzako erresidentziara ekarri ditzakete. Hau da, animalia bat erosi dezakete eta etxean eduki ordez gure erresidentzian eduki dezakete.

- Beste aldetik, lehen existitzen diren “txakurtegiak” hobetzean datza gure proiektua. Hau da, txakurtegiaren ideia jarraituz animalia abandonatuak jasoko ditugu. Animalia horiei bigarren aukera bat emango diogu. Ez ditugu animalia horiek hilko. Beraiekin geratuko gara adoptatuko dituen pertsona bat agertu arte edo zaharrak diren arte eta beraien momentua iristen den arte. Beraz, gure ideiak bihotz oneko balioa dauka.

Gure balioak bezeroari lana errazten dio animaliak zaintzeko unean eta prezioak pertsonaren ekonomiari moldatzen zaizkio. Beraz, eskuragarria da edozein pertsonarentzat.

Animaliak zaintzeko gauzak, tramankuluak... erabiltzeko errazak izango dira pertsona guztiak erabili ahal izateko.